## 4.4.- Oinarrizko gaitasunak, erakundearenak eta banakakoak

Jokabidean, bai erakunde mailan bai indibidualean, funtsezko faktore dira gizarte ekimeneko kooperatiba izatea eta azaldu ditugun balioak. Era berean, horiek zera eskatzen dute: funtsezko gaitasunak izatea integratuta, hala nola, **ezagutza, trebetasunak eta jarrerak, horiek zehazten baitute gure zerbitzu hornitzaile izaera.**

Ondoko taulan jaso ditugu enpresa, antolaketa eta pertsona mailako gaitasun horiek:

| Funtsezko gaitasunak | Antolaketa gaitasunak | Norbanakoaren gaitasunak |
|---|---|---|
| **1. Enpresa sena eta enpresa proiektuarekiko konpromisoa bazkide langilearen aldetik** | Kooperatiba gisa enpresaren jabe sentitzea | - Erakundearekiko sentsibilizazioa: xede eta helburu komunekin identifikatzea eta helburuak lortzea; konpromisoa, misioa konpartitzea...<br>- Proaktibo izateko gaitasuna |
| | Profesionaltasuna antolaketaren arlo guztietan | - Aldaketen aurrean prestutasuna eta malgutasuna<br>- Taldean lan egiteko gaitasuna<br>- Profesional mailako eta ikasteko ardura |
| **2. Erabateko Kalitatera bideratutako jarrera proaktiboa Elkarte Kooperatibo osoaren aldetik** | Etengabeko hobekuntzarako joera era proaktiboan lantzea | - Sormena, ideiak sortzea, berrikuntza<br>- Autokritikarako eta etengabeko hobekuntzarako joera |
| | Kalitatea eta eraginkortasuna | - Helburukako kudeaketa maila guztietan, enpresaren helburuekin parekatuta<br>- Bolumen eta kalitate mailan lorpenera jotzea<br>- Baliabide materialak eta ekonomikoak zaindu eta aprobetxatzeko joera |
| | Planifikazioa eta antolaketa | - Metodoz lan egiteko gaitasuna<br>- Zorroztasuna eta diziplina jokabideetan |
| **3. Bezeroari eta erabiltzaileari bideratutako zerbitzuan eta orientazioan bereiztea** | Egokitzea | - Bezero eta erabiltzaileen beharrak jakitea<br>- Lana eta dagozkion trebetasunak menperatzea<br>- Entzuteko gaitasuna<br>- Jarrera atsegina, enpatia eta hurbiltasuna erabiltzailearekiko |
| | Fideltasuna | - Pertsonen jarraipena bezeroari dagokionez<br>- Erabiltzailearen aurrean balioen eta jokabideen berdintasuna |
| **4. Gure laguntza teknologietan eta erabiltzaileari laguntzeko tekniketan bereiztea** | Gure bezeroei balioa ekarriko dieten teknologiak geureganatzea | - Teknologia menperatzea eta gaitasun teknikoa izatea<br>- Aldaketen eta etengabe ikastearen aldeko jarrera |
| | Gure bezero eta erabiltzaileen beharretara egokitutako produktuak sortzea | - Produktuak etengabe hobetzea<br>- Ideien ekarpena eta hobekuntzetan partaide izatea |